



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urriaren 30a

132. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Berribeiteko Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Berribeitiko Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urriaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Berribeitiko Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Berribeitiko Udalari buruzko 2016ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Iritzia (6. or.).

II.1. 2016ko kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (7. or.).

**III.** Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (8. or.).

III.1. 2016ko aurrekontuaren betetze-maila (8. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaizta (9. or.).

III.3. Diruzaintzako gerakina 2016ko abenduaren 31n (9. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (10. or.).

III.5. 2016ko ekonomia- eta ondare-emaiztaren kontua (11. or.).

**IV.** Iritzian eraginik ez duten iruzkin eta oharrak. Gomendioak (12. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n (12. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (14. or.).

IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (16. or.).

IV.4. Alderdi orokorrak (16. or.).

IV.5. Langile-gastuak (18. or.).

IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (20. or.).

IV.7. Transferentzia arruntetatikoko gastuak (22. or.).

IV.8. Inbertsioak (24. or.).

IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (25. or.).

Eranskina. Udalaren 2016ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:  
[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketaren programari jarraituz, Berribeiteko Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaizta, diruzaintzako gerakina, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeak zaizkion arauekin.

Berribeiteko Udalarari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Berribeiteko Udalak 25,7 Km<sup>2</sup>-ko azalera du. 10 kontzejuk osatutako udalerrri bat da, eta udalerrriaren hiriburu administratiboa Berribeiteko kontzejuan dago. Azkeneko urteotan, biztanleriak hazkunde handi bat izan du; 2001ean, 1.278 biztanle zituen; 2010ean, berriz, 4.852 biztanle, eta 2016an, azkenik, 6.731 biztanle zeuzkan; hau da, aztertutako aldi bost halako egin du biztanle-kopuruak.

Biztanle horiek udalerriko kontzejuetan banaturik daude, ondoko koadroan adierazten den bezala; hala ere, biztanleriaren ehuneko 63 Artikako Kontzejuan bizi da.

Kontzejua	2001eko biztanleria	2016ko biztanleria
Aitzoain	254	457
Añezkar	90	207
Artika	447	4.267
Ballariain	15	30
Berribeite	202	659
Berriogiti	104	895
Elkarte	20	19
Larrageta	35	83
Lotza	52	59
Oteitza	59	55

Udalak ez du menpeko enterik sortu bere kudeaketarako, eta zenbateko hauek zituen 2016ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	4.377.009	4.802.153	18

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: Uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen tratamendua eta eskualeko garraioa.

a) Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Harrera Eta Orientabide Sozialerako Programa, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Programa eta Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta, Haurren eta Familiaren Arreta Programa eta Babestutako Enplegu Soziala.

Halaber, Udala, beste udal batzuekin batera, "Orreaga" Musika Eskolaren Patronatua izenekoan parte hartzen du, musika eskolak emateko.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2016an
Iruñerriko Mankomunitatea-Eskualdeko garraioa	109.118
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	106.833
Musika Eskola	55.860

Halaber, akordioak daude Berriozarko eta Antsoaingo udalekin, Berriobeitiko biztanleek kirol jarduerak egin ahal ditzaten herri horietan haietako bizilagunen baldintza berdinetan.

2002an "Gestión Urbanística Berrioplano SA" sozietatea eratu zen, oso-osorik udalarena dena. Sozietate horrek 60.121 euroko kapitala du; sortu zenez geroztik ez du inolako jarduerarik izan eta, 2003ko urrian inolako eraginik edo erabilera praktikorik gabe uztea erabaki zuen Udalbatzaren osoko bilkurak. 2011ko apirilean, Osoko Bilkurak hura desegitea erabaki zuen.

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Kontratuak	Besterik
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Musika Eskola	X			X
Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa		X		
Autonomia pertsonala sustatzea		X		
Mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen arreta		X		
Haurren eta familiaren arreta		X		
Gizarte enplegu babestua		X		
Hirigintza	X		X	
Uraren ziklo integrala		X		
Hiri-hondakinak		X		
Eskualdeko garraioa		X		
0-3 urtekoen ikastetxea (2 eskola)	X		X	
Berriobeitiko udal-kiroldegia	X		X	
Artikako udal-kiroldegia	X			X
Añezkarko pilotalekua (udalarena)	X			
Kultura- eta euskara-jardueren kudeaketa	X			
Kirol- eta kultura-jarduerak	X		X	
Kontsumitzailearen udal bulegoa	X		X	
Ludoteka	X		X	
Liburutegia eta Kultur Etxea	X			
Artikako kirol pistak	X			

Entitatearen 2016ko aurrekontua 2015eko abenduaren 1eko Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2016ko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharrak eta ondorioak jaso ditugu (egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorren oroitidazkiarekin.

Azterketa-lana 2017ko ekainean egin zuen auditoriaren arloko enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberako auditore baten zuzendaritzaren pean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Jarduketa honen emaitzak Berriobeitiko Udaleko alkateari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriobeitiko Udaleko langileei, beren lankidetzarengatik.

## II. IRITZIA

Berriobeitiko Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

### *UDALAREN ERANTZUKIZUNA*

Udalaren kontu-hartzailletza da kontu orokorra egin eta aurkezteko ardua duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra Udalaren 2017ko uztailaren 4ko Osoko Bilkurak onetsi zuen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarriko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kontu orokorretan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia emateko.

## II.1. 2016KO KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, Udalaren ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari eta 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izandako emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

## II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2016ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

**III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren azaltzen dira Berribeiteko Udalaren 2016ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzi-tsuenak.

**III.1. 2016ko AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.024.014	-3.008	1.021.006	945.701	93	932.644	99	13.057
2. Ondasun arrunten eta zer-bitzuen gastuak	1.863.215	-10.566	1.852.649	1.696.726	92	1.566.009	92	130.717
3. Finantza-gastuak	71.041	-11.205	59.836	57.345	96	57.345	100	0
4. Transferentzia arruntak	424.136	-14.869	409.267	378.133	92	361.178	96	16.955
6. Inbertsio errealak	169.000	188.550	357.550	307.616	86	144.654	47	162.962
7. Kapital-transferentziak	1.500	-1.500	0	0		0		0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0		0		0
9. Finantza-pasiboak	278.290	722.296	1.000.586	991.488	99	991.488	100	-1
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>3.831.195</b>	<b>869.698</b>	<b>4.700.893</b>	<b>4.377.009</b>	<b>93</b>	<b>4.053.318</b>	<b>93</b>	<b>323.691</b>

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobrantsa (%)	Kobrantszeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.233.147	0	2.233.147	2.428.795	109	2.258.311	93	170.484
2. Zeharkako zergak	10.000	0	10.000	70.228	702	68.940	98	1.288
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	678.895	0	678.895	681.164	100	662.545	97	18.619
4. Transferentzia arruntak	1.006.249	0	1.006.249	977.650	97	977.339	100	311
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	528.104	0	528.104	627.570	119	625.774	100	1.796
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0		0		0
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	16.746	-	4.634	28	12.112
8. Finantza-aktiboak	0	869.698	869.698	0	-	0		0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0		0		0
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>4.456.395</b>	<b>869.698</b>	<b>5.326.093</b>	<b>4.802.153</b>	<b>90</b>	<b>4.597.543</b>	<b>96</b>	<b>204.610</b>



## III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	4.664.404	4.802.153
- Aitortutako betebeharrak	4.731.046	4.377.009
<b>Aurrekontu-emaitza</b>	<b>-66.642</b>	<b>425.144</b>
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	26.607	15.000
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	1.042.455	817.376
<b>Aurrekontu-emaitza doitua</b>	<b>949.206</b>	<b>1.227.520</b>

## III.3. DIRUZAINZAKO GERAKINA 2016ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
(+) <i>Kobratzeko dauden eskubideak</i>	315.228	251.654
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	239.160	204.701
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	715.870	775.785
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	28.697	27.086
(-) Ordainketen itzulketak	32.106	1.816
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-690.048	-747.175
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-10.557	-10.559
(-) <i>Ordaintzeko dauden betebeharrak</i>	451.393	424.864
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	351.448	323.691
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	25.535	27.472
(+) Diru-sarreraren itzulketak	4.273	4.367
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-9.112	-7.612
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	79.249	76.946
(+) <i>Diruzaintzako funts likidoak</i>	1.050.952	1.445.307
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	14.879	14.879
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>929.667</b>	<b>1.286.977</b>
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	45.000	60.000
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0	0
<b>Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina</b>	<b>884.667</b>	<b>1.226.977</b>

## III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa			
Deskribapena	2015	2016	
A Ibilgetua	49.063.387	48.866.484	
1 Ibilgetu materiala	48.627.797	48.281.952	
2 Ibilgetu ez-materiala	17.937	20.721	
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	417.653	563.811	
4 Herri-ondasunak	0	0	
5 Finantza-ibilgetua	0	0	
C Zirkulatuzailea	2.076.258	2.462.668	
8 Zordunak	1.015.833	1.009.388	
9 Finantza-kontuak	1.060.425	1.453.280	
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0	
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>51.139.645</b>	<b>51.329.152</b>	
Oroipen-kontuak	688.878	680.574	

Pasiboa			
Deskribapena	2015	2016	
A Funts berekiak	46.632.259	47.841.281	
1 Ondarea eta erreserbak	43.786.925	44.736.750	
2 Ekitaldiko emaitzak	949.825	1.192.276	
3 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.895.509	1.912.255	
C Epe luzeko hartzekodunak	4.036.324	3.044.837	
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	4.036.324	3.044.837	
D Epe laburreko zorrak	471.062	443.034	
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	460.505	432.475	
6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	10.557	10.559	
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>51.139.645</b>	<b>51.329.152</b>	
Oroipen-kontuak	688.878	680.574	

## III.5. 2016ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2015	2016	Hartzeko	2015	2016
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	3 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.094.249	1.251.718
61 Langile-gastuak	882.031	945.701	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	124.389	43.599
62 Finantza-gastuak	104.239	57.345	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.635.501	1.688.957
63 Tributuak	110	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	588.738	597.908
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.683.477	1.696.726		0	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	922.943	977.650
67 Transferentzia arruntak	526.447	378.133	77 Kapitalaren gaineko zergak	142.226	212.158
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	156.358	13.417
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	501.122	504.209	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiaren emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	966.978	1.203.293	Ekitaldiaren emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>4.664.404</b>	<b>4.785.407</b>	<b>Guztira</b>	<b>4.664.404</b>	<b>4.785.407</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia	Deskribapena	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
<b>80</b> Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	966.978	1.203.293
<b>82</b> Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	-309
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)			84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-17.153	-10.708
89 Etekin garbia, guztira	949.825	1.192.276	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>949.825</b>	<b>1.192.276</b>	<b>Guztira</b>	<b>949.825</b>	<b>1.192.276</b>

#### IV. IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTEN IRUZKIN ETA OHARRAK. GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, emandako iritzian eraginik ez dutenak, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileen-tzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

##### IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 3,83 milioi euroko gastuak eta 4,45 milioi euroko diru-sarrerak ageri ditu.

Aipatutako kredituei 0,87 milioi euro –hau da, ehuneko 23 eta ehuneko 19 gehiago hasierako zenbatekoak baino– gehitzen zaizkie aurrekontu-aldaketan bitartez; horrenbestez, gastuen behin betiko aurreikuspenak 4,70 milioi eurokoak dira eta diru-sarreerak, berriz, 5,33 milioi eurokoak. Aldaketa horiek eragina dute, funtsean, finantza-pasiboetako gastuen kapituluak –zor bizian 2016an egindako amortizazio aurreratutakoak direla eta– eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatu-tako inbertsio errealen kapituluak. Hiru aurrekontu-aldaketa berrikusi dira, eta ondorioztatu da zuzen izapidetu direla.

Aitortutako betebeharrak 4,38 milioi eurokoak dira, ehuneko 93ko betetze-mailarekin.

Aitortutako eskubideek 4,80 milioi euro egiten dute, ehuneko 90eko betetze-mailarekin.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalak gas-tatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	22	Tributu bidezko diru-sarrerak	66
Bestelako gastu arruntak	47	Transferentziak	21
Inbertsioak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	13
Finantza-zama	24	Zorduntzea	0
	100		100

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 69 azaltzen dute eta finantza-zamak (interesak gehi amortizazioak), berriz, ehuneko 24. Diru-sarreretan, iturri nagusia tributu-izaerakoak dira, ehuneko 66 baitira.

Udalaren 2016rako aurrekontuaren betetzeak eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketak honako adierazle eta magnitude hauek erakusten dituzte:

Adierazleak	2015 (1)	2016	Aldea (%) 2016/2015
Aitortutako betebeharrak, guztira	4.731.046	4.377.009	-7
Aitortutako eskubideak, guztira	4.664.404	4.802.153	3
Gastuen betetzea (%)	93	93	
Diru-sarreraren betetzea (%)	89	90	
Gastu arruntak	3.196.304	3.077.905	-4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	3.092.065	3.020.560	-2
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	214.318	307.616	43
Finantza-eragiketen gastuak (9)	1.320.424	991.488	-25
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	4.537.462	4.785.407	5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	3.070.599	3.180.187	4
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	126.942	16.746	-87
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	96	103	
Gastu arrunta biztanleko	490	457	-7
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	470	472	-
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	23	21	
Aurrezki gordina	1.445.397	1.764.847	22
Finantza-zama	1.424.663	1.048.833	-26
Aurrezki garbia	20.734	716.014	3353
Aurrekontu-emaizta doitua	949.206	1.227.520	29
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	1.253.782	1.416.632	13
Diruzaintzako gerakina, guztira	929.667	1.286.977	38
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	884.667	1.226.977	39
Finantza-zamaren adierazlea (2)	31	22	
Aurrezki gordina / Diru-sarrera arruntak (%) (2)	32	37	
Zorpetze-ahalmena (%)	1	15	
Zor bizia	4.036.324	3.044.837	-25
Zorpetze maila (2)	89	64	
Zor bizia biztanleko	618	452	-27

(1) Auditatu gabeko ekitaldia

(2) Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

2016an, Udalak ehuneko zazpi gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko hiru handiagoak izan ditu.

Gastuen gutxitze horren arrazoia da gastu arruntak –ehuneko lau– eta finantza-zama –ehuneko 26– jaitzi izana. Kapital-gastuak ehuneko 43 handitu dira.

Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko lau egin dute gora, eta diru-sarrera arruntan multzoa ere ehuneko bost handitu da. Kapital bidezko diru-sarrerak ehuneko 87 jaitzi dira.

2016an, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoak dira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 1,42 milioi eurokoa da eta ehuneko 13 egin du gora 2015ekoarekiko; aurrekontu-emaizta doitua 1,23 milioikoa da, ehuneko 29 handiagoa aurreko ekitaldikoa baino.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak ere nabarmen egin du gora: 0,88 milioitik 1,23 milioira.

Aurrezki gordina, 1,76 milioi 2016an, ehuneko 22 handitu da; finantza-zama, berriz, ehuneko 26 gutxitu da. Horrenbestez, aurrezki garbian igoera nabarmen bat gertatzen da, zeren eta 20.734 eurokoa izatetik 716.014 eurokoa izatera pasatzen baita.

Finantza-zamaren adierazlea<sup>1</sup> ehuneko 22koa da 2016an (2015ean, berriz, ehuneko 31 izan zen), eta aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten<sup>2</sup> ehuneko 37 egiten du (ehuneko 32 izan zen 2015ean).

Zor bizia ehuneko 25 jaitsi da, eta 2016an 3,04 milioikoa izatera iritsi da; zorpetze-maila ere jaitsi da<sup>3</sup>, ehuneko 89koa izatetik ehuneko 64koa izatera, eta gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110ko legezko tasaren azpitik dago. Biztanle bakoitzeko zorra 452 eurokoa da 2016an (618 euro 2015ean). 2016an, guztira 0,72 milioi amortizatu dira alde aurretik.

Zor biziaren barruan, Artikako Kontzejuak emandako interesik gabeko bi aurrerakin sartzen dira, 2010eko abendukoa bata -1,02 milioi euro- eta 2011ko urtarrilekoa bestea -0,23 milioi euro-, bai eta 2016ko urrian eta 2016ko urtarrilean, hurrenez hurren, aurreikusitako guztizko amortizazioa ere. 2016ko abenduaren 31n, ez da haien itzulketarik egin; horrenbestez, kontzeju horren zorra 1,25 milioikoa da.

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, Berriobeitiko Udalak finantza-egoera ona dauka 2016ko abenduaren 31n, eta bere zor bizia ehuneko 25 jaitsi du; 0,72 milioiko aurrezki garbia du eta 1,23 milioi euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina. Finantza-egoeraren hobetzea neurri handi batean zor zaie gastuei eusteko neurriei, azken urteetan aurrera eramandakoei; neurri horiek finantza-orekari eustera bideratu dira.

Ganbera honen aurreko txostenarekin alderatuta -2010eko txostena da-, finantza-egoerak nabarmen egin du hobera, zeren eta urte hartan honako hauek baitziren haren ezaugarriak: zor biziaren maila handia, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboa eta aurrezki-maila txikiak.

#### IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalerako terminoetan neurtua.
- Gastu-arauak -hau da, Udalaren 2016ko gastu zenbakarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak- ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalerako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

*Aurrekontu-egonkortasunaren araua.*

Udalak 2016an arau hori bete du, zeren eta gaitasuna lortu baitu 1,38 milioi finantzatzeko, ondoren azaltzen den bezala:

<sup>1</sup> Lehen, "zorpetze-maila" deitzen zitzaion, eta finantza-zamak diru-sarrera arruntetan egiten duen ehuneko da.

<sup>2</sup> Lehen, "zorpetze-muga" esaten zitzaion.

<sup>3</sup> Lehen, "zor biziak diru-sarrera arruntetan egiten duen ehuneko" esaten zitzaion.

Kontzeptua	2016
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	1.416.632
Diru-bilketa zalantzarria duten diru-sarrerengatiko doikuntzak	-40.583
Beste administrazio batzuetatik heldutako transferentziengatiko doikuntzak	-1
<b>Finantzatzeko ahalmena</b>	<b>1.376.048</b>

#### GASTUAREN ARAUA

2016ko ekitaldiko gastu zenbakarria 2015eko ekitaldiko baino 75.471 euro txikiagoa da; horrenbestez, bete egiten da arau hori.

Kontzeptua	2015	2016
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	3.410.622	3.385.521
Zorpetze-interesengatiko doikuntzak	-104.239	-57.345
Funts finalistekin finantzatzeko gastuengatiko doikuntzak	-187.454	-228.578
Oinarri-urtearen gastu zenbakarria	3.118.929	3.099.518
BPGaren erreferentziako tasa	1,018	
<b>2016rako gehieneko gastu zenbakarria</b>	<b>3.175.070</b>	

#### FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN ARAUA

Aurrekontu-egonkortasunaren terminoetan, administrazio publikoaren sektorearen zor biziak ez ditu administrazio publikoen arteko pasibo finantzarioak hartzen; horrenbestez, magnitude horren barruan ez dira sartzen Artikako Kontzejuak emandako 1,25 milioiko aurrerakinak. Horren guztiaren emaitza da zor bizia, kontabilitate nazionalako terminoetan, 1,79 milioikoa dela, eta ehuneko 37ko zorpetze-maila egiten duela diru-sarrera arrunten gainean; ehuneko hori txikiagoa da ezarritako ehuneko 110eko muga baino.

Gai hori dela-eta 2016ko kontu orokorrarekin batera ageri den txostenak ez du zor biziaren doikuntza hori jasotzen; horrenbestez, horren bolumena 3,04 milioikoa da; kasu horretan ere, Udalak finantza-egonkortasunaren araua betetzen du, zeren eta bolumen horrek diru-sarrera arrunten ehuneko 64 eginen bailuke.

#### HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO EPEA

Adierazle horren batez besteko balioa honako hau izan da 2016an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2016
Lehenengo hiruhilekoa	-7,93
Bigarren hiruhilekoa	-15,62
Hirugarren hiruhilekoa	-13,01
Laugarren hiruhilekoa	-15,41

Horrenbestez, Udalak bete egin du printzipio hori, zeren eta ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketetarako ezarritakoa baino (30 egun naturaleko epea).

#### IV.3. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2010eko ekitaldiari buruz egindako txostenean adierazitako gomendio garrantzitsuen zati handi bat aplikatu da; udal kudeaketaren honako alderdi hauekin lotutako gomendioak ziren:

- Urteko aurrekontua onestea aplikatzekoa den araudian ezarritako datetan.
- Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioetsi bat egitea; inbentario horrek gaurkotasuna egon behar du eta kontabilitatearekin konektatuta.
- Hirigintza kudeatzeko udal sozietatea desegitea.
- Langileen kudeaketaren eta kontratazioaren arloko politika bat ezartzea, egokiak diren kontrol-mekanismoekin eta lan-kontratupeko langileen ordainsarien baldintzak hitzarmen kolektibo bati lotuz.
- Kontratuak aldatzeko behar diren espedienteak haiek betearazi aurretik izapidetzea.

Oraindik betetzeke daude, txosten honen ondorengo atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek:

- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea.*
- *Plantilla organikoa Udalaren egiazko premien arabera gaurkotzea edo/eta haiei egokitzea, eta, araudi indardunaren testuinguruan, lanpostu huts guztiak sartzeari enplegu-eskaintza publikoan.*
- *Langileen kontratazioarako espediente administratiboei eustea, eskatzekoa den eta behar den dokumentazio guztiarekin.*
- *Kasuan kasuko adjudikazio-prozeduren izapidetzea osatzea eta kasuan kasuko kontratuak egitea kontratu indardunak ez duten zerbitzuetan.*

#### IV.4. ALDERDI OROKORRAK

- Udalak 2013an ondasunen inbentarioa ezarri eta onetsi zuen. Inbentario hori urtero gaurkotasuna joan da 2016ra arte, kontuetan gertatutako altak eta bajak eta emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkion amortizazioak kontabilizatu.

Argitzeko gelditu da Artikako Kultur Etxearen jabetza. Kultur Etxearen eraikuntza erdibana ordaindu zuten Kontzejuak eta Udalak, eta adostu zuten azken horrek hartuko zuela bere gain instalazioaren mantentze-gastua.

- Udalaren Lurzoru Ondarea osatzen duten ondasunak ez dira erregistratzen eta inbentarioan jasotzen gainerako ondasunetatik bereizita.
- Udalak, 2014tik, "Orreaga" Musika Eskolaren Patronatua deitutakoan parte hartzen du. Patronatu hori, Berriobeitiko Udalaz gainera, honako hauek osatzen dute: Erro Ibarreko Udala, Esteribarko Udala, Aurizko Udala, Luzaideko Udala eta Artzibarko Udala, bai eta guraso, ikasle eta irakasleen ordezkariak ere. Helbide soziala "Orreaga" Eskualdeko Eskolaren erakinean dago, Garraldan, baina ikastetxe horretan ez ezik, honako toki hauetan ere ematen dira musika-eskolak: Zubiriko eskolan, Ollokiko haur eskolan, Artikako Kultur Etxean, Erroko eskolan, Aurizberriko Kontzejuan eta Auritzen. Hasiara batean patronatu edo eskola hori Aezkoako Batzar Nagusiak eratu zuen, eta hark onetsi zituen haren estatutuak. Entitate horrek, ordea, gaur egun ez du hartan parte hartzen.

Gure iritziz, "patronatu" deitutakoaren figura juridikoa ez da egokia toki entitateen multzo edo elkarte baterako, musika-zerbitzua eskaintzeari begira.

- Fakturen erregistro elektronikoa ezarri da.
- Gaur egun, hirigintzako udal plan berria izapidetzen ari da eta hura idaztea lizitatzen ari da.
- Udalaren zor biziaren muga-eguneratzeen egutegia, banku-entitateekikoa, honako hau da 2016ko abenduaren 31n:



Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2017	291.207	16	16
2018	294.358	16	32
2019	297.575	17	49
2020	300.858	17	66
2021	304.209	17	83
2022	307.630	17	100
<b>Guztira</b>	<b>1.795.837</b>	<b>100</b>	

Artikako Kontzejuaren 1,25 milioiko zorra 2016an iritsi da muga-egunera. Gaur egun, ez da akordio gehigarririk egin Udalaren eta Kontzejuaren artean, eta azken horrek itzulketa ere ez du eskatu.

Gure gomendioak:

- *Juridikoki argitzea aurreko paragrafoetan aipatutako ondasunen jabetza, haiek Udalaren ondasunen inbentarioan jasotzeari ala ez jasotzeari begira.*
- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistro eta inbentarioa bereiz kudeatzea.*
- *“Musika patronatua” deitutakoaren figura juridikoa analizatzea. Gure iritziz, egokiagoa litzateke toki entitateen partzuergo edo mankomunitate bat sortzea, edo egungo patronatua haietako bati atxikitzea, gainerako entitate interesdunek ekarpenen bitartez finantzaketan lagunduta. Halaber, azter liteke hura etorkizuneko udal manaren garapenean aurreikusitako eskualdeetako bati atxikitzea.*
- *Artikako Kontzejuaren egoera erregularizatzea, emandako aurrerakinen itzulketari dagokionez.*
- *Udalaren oroitidazkia osatzea aurrekontu-betetzeari buruzko informazioarekin, kapituluaren, langileen eta kontratazioaren arabera. Hartan jasotzea aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren araudia betetzeari buruzko txostena.*

## IV.5. LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuek 0,95 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 93koa izan da. 2016an sortutako gastu guztien ehuneko 22 dira. 2015. urtearen aldean, gastu hori ehuneko zazpi igo da.

Hona kontuak banakatuta, 2015ekoekin alderatuta:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa
	2015	2016	
Goi-karguak	37.806	39.246	4
Funtzionarioak	146.328	145.994	0
Lan-kontratudun langileak	369.357	414.161	12
Gizarte-zamak	328.540	346.300	5
<b>Guztira</b>	<b>882.031</b>	<b>945.701</b>	<b>7</b>

2016ko gastu-igoera, ehuneko zazpikoa, justifikatuta dago, funtsean, ordainsariek ehuneko bat egin dutelako gora, enplegua sustatzeko langileak kontratatu direlako eta langile batzuk berriz laneratu direlako eta beste bazuen lanaldiak luzatu direlako.

Osoko Bilkuraren 2012ko Erabakiaren bitartez, Berriobeitiko Udala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileen hitzarmen kolektiboari atxiki zitzaion.

2016ko plantilla organikoaren arabera, 18 lanpostu daude guztira, honako atxikipen hauekin:

Udalaren arloa-Plantilla	Lanpostuen kopurua	Lanpostu hutsen kopurua
Idazkaritza	5	3
Ekonomikoa	2	1
Kontzejuetako zerbitzuak	1	1
Kultura eta euskara	3	3
Hirigintza	1	1
Albienteak	2	-
Askotariko zerbitzuak	4	-
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>9</b>

Hau da, lanpostu hutsak plantillako lanpostu guztien ehuneko 50 dira.

2016ko abenduaren 31n, guztira 18 langile ari ziren lanean Udalean; hona hemen xehetasunak:

Langileak	Lanpostuen kopurua
Funtzionarioak	3
Administrazio-kontratudun langileak	1
Lan-kontratudun finkoak	7
Aldi baterako lan-kontratudunak	7
<b>Guztira</b>	<b>18</b>

Aldi baterako langileei dagokienez, haiek funtsean enplegu-bulego publikoei zerrendak eskatuz sartzen dira, bai eta 2010ean egindako zerrenda batzuei jarraituz ere. Udalari buruzko aurreko txostenean adierazi bezala, hiru langilek aldi aterako laneko lotura izan zuten 1991tik, 1993tik eta 1997tik, hurrenez hurren; gainerakoan lotura 2013koa eta ondorengoa da. Horiek guztiak plantillako lanpostu hutsak betetzen ari dira.

Bi langileren aldi baterako kontratazioa aztertu da, eta ondorioztatu da zuzen izapidetu zela; kontratazio hori justifikatu da esanez kontratazio horiek aparteko izaera dutela eta behar urgente eta geroraezinak estaltzeko egin direla.

2016an, enplegu eskaintza bat onetsi zen, sei lanposturena. Hari onespena emateko ebazpenean aipatzen zen bezala, horietako bost ez dira aurten estaliko, Estatuko Aurrekontuei buruzko Legean ezarritako murriztapenak aplikatuta. Beste lanpostua –liburutegiko arduradunarena– 2018an deituko da.

2016an, ez zen langile finkoetarako inongo deialdirik egin.

Langile-gastuen lagin bat –bost langile– aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizata daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har.

Ganbera honek 2010eko kontuei buruz egindako txostenean aipatzen zen bezala, disfuntzio batzuk aurkitu dira, bereziki administrazioaren arloan, bai lanaren bolumenaren berarengatik eta giza baliabideekin duen loturarengatik, bai maila/kategoria desberdinetako pertsonen funtzio berdin-berdinak betetzeagatik.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, balizko disfuntzioak saihesteko, batez ere administrazioaren arloan, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatu ahal izateko.*

- *Aldi baterako lan-kontratupeko langileen egoera aztertu eta berrikustea.*

- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, enplegu-eskaintza publikoan sartzeko plantilla organiko lanpostu hutsak.*

- *Langileen espedienteak osatzea langileen bizitza administratiboaren oinarritzko dokumentu guztiekin; bereziki, 2010a baino lehenagoko lotura duten aldi baterako langileen kasuan.*

## IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 1,7 milioikoak izan ziren; betetze-maila aurreikusitako kredituaren ehuneko 92koa izan da, eta ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 39 egiten du. 2015. urtearen aldean, zenbatekoak ehuneko bat egin du gora.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Hornidurak	315.497	295.402	-6
Berdegunek mantentzea	185.423	180.714	-2
Haur eskolen kudeaketa	202.994	215.248	6
Berribeitiko kirol instalazioak kudeatzeko kontratua	410.226	400.864	-2
Beste gastu batzuk	569.447	604.498	6
<b>2 kapitulua, guztira</b>	<b>1.683.587</b>	<b>1.696.726</b>	<b>1</b>

2016an, honako kontratu hauek adjudikatu ziren –haien gastuak kapitulu honetan sartzen dira–:

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Es-kaintzaileen kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Gastua 2016an (BEZik gabe)
Argiteria publikoaren mantentzea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	46.000	4	32.200	17.442
“Euskara merkataritza” proiektua	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	30.225	3	30.225	2.754
Udal eraikinak garbitzea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	32.989	4	24.742	22.680
Ondare ez-materiala	Laguntza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	24.660	1	24.660	5.480
Udal aseguruak	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	23.542	3	23.542	3.951
Kultur Etxeko atezaintza eta taberna kudeatzea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	25.000	3	22.500	20.625
Jakinarazpenak banatzea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	22.004	1	22.000	1.833
Berribeitiko zenbait kale zolatzeta	Obra	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	15.702	1	15.663	15.663
2017-2018 aldirako tributuen kontrolerako plana	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	190.000	5	Diru-bilketaren % 13,7	0

Argiteria publikoa mantentzeko eta udal eraikinen garbiketa egiteko kontratuak berrikusi dira, eta ondorioztatu da ezen, oro har, araudi indardunari jarraituz izapidetu direla.

Halaber, kapitulu honetako gastuen lagin bat berrikusi da, eta egiaztatu da haiek beren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, araudi indarduna errespetatu dela.

Aurreko berrikuspenak direla eta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- “Euskara merkataritza” proiektuan Iruñerriko zenbait udalek hartzen dute parte. Berribeitiko Udala da adjudikazioa egiten duena, eta zerbitzuaren guztizko kostua 30.225 eurokoa da. Zenbateko hori proiektuan parte hartzen duten udal guztien artean banatzen da, eta Berribeitiko Udalari 2.754 euroko gastua dagokio.

- 2016an, udal aseguru enpresaren zerbitzua aseguru-entitate bati adjudikatu zaio. Zerbitzua bateraturik geratu da aurrez zenbait aseguru-entresarekin bereizi kontratatu diren zenbait aseguru polizak mugatzen direnean (muga-eguneratzeko data desberdinak dituzte); hori dela eta, aseguruengatik gastuak, 2016an, aseguru-entresa baten baino gehiagoren artean banatuta daude.

- Haur eskolen kudeaketarengatik gastua –215.248 euro 2016an–, islatzen da egindako gastuen guztizkoari –453.999 euro, jantokia barne– kenduz matrikularako eta jantokirako kuoten bidez izandako diru-sarrerak, familiek egindakoak –aurreko urtean, 238.187 euro izan dira–. Gure iritziz, aurrekontuan jaso beharra dago, konpentsatu gabe, zerbitzu horretatik datozen gastua eta diru-sarrera.

- Bestalde, Berriobeitiko kirol instalazioen kudeaketarako kontratuaren arabera, Udalak, kontratutik bertatik datorren gastuaz gainera –400.864 euro–, instalazioetako elektrizitate, ur, argi, gas eta aseguru gastuak hartzen ditu; horrek 146.216 euroko gastua eragin dio 2016an. Instalazio horiek erabiltzeagatik izandako diru-sarrerak 449.895 eurokoak izan dira; beraz, gastuen ehuneko 82 estaltzen da modu horretan.

- Muntako zenbatekoa duten honako zerbitzu hauek detektatu dira, eta haietarako ez dago kontratu indardunik:

Deskribapena	Gastuaren zenbatekoa 2016an (BEZa kenduta)
Berdegunek mantentzea	123.242
Hirigintzako aholkularitza	19.533
Agentzia Exekutiboa	14.301
Kontzejuen kontabilitatea eramatea	10.582
Udal eraikinen gas-hornidura	9.424

Hornidura eta laguntza arloak direla-eta indarrean dauden kontratuei dagokienez, kontu-hartzailearen eragozpen-ohar/txosten orokor bat badago, 2016ko irailean egina, non zehazten baitira errepikatzen direlako eta daukaten zenbatekoagatik –lau urterako zenbatetsitako balioa– kontratazio-prozedura batez adjudikatu beharko liritekeen kontratuak; prozedura hori, normalean, negoziatua eta Europar Batasunean publikitatez egin gabe izan behar litzateke. Halaber, 2015ean eta 2016an hori dela-eta egindako jarduketak aipatzen dira.

Gomendioak:

- *Aurrekontuari egozte, konpentsaziorik gabe, haur eskolen kudeaketatik heldu diren gastu eta diru-sarrerak.*

- *Kasuko kontratazio-espedituen izapidetze-prozesua amaitzea indarririk ez duten kontratutan jasotako zerbitzuetarako edo, daukaten garrantziagatik edo zenbatekoagatik, araudi indardunetan jasota daudenetarako.*

## IV.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Izaera horretako gastuek 378.133 euro egin dute 2016an, eta ehuneko 92ko betetze-maila izan dute. Guztizko gastuaren ehuneko bederatzi dira. Gastu horiek ehuneko 28 jaitsi dira 2015ekoekin alderatuta.

Honako hauek dira 2016ko gastuaren xehetasunak eta 2015ekoekiko alderaketa:

Transferentzien ondoriozko gastuak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Mankomunitateei	264.155	271.811	3
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	72.530	72.516	0
Familiei	23.387	20.953	-10
Nafarroako Gobernuari (Infolocal)	7.658	7.658	0
Kontzejuei	5.000	2.000	-60
Nafarroako Foru Komunitateko erakunde autonomoei eta agentziei	119.466	1.950	-98
Udalei	1.243	1.245	0
ANIMSAri	32.186	0	-100
Beste transferentzia batzuk	822	0	-100
<b>4 kapitulua, guztira</b>	<b>526.447</b>	<b>378.133</b>	<b>-28</b>

Transferentzia nagusiak bideratu dira zerbitzu mankomunatuak edo/eta horien parekoak (eskualdeko garraioa, oinarritzko gizarte zerbitzua eta musika eskola) finantzatzera. Zerbitzu horiek kapituluko gastuaren ehuneko 72 egiten dute.

2016an ez da Foruzaingoarekiko hitzarmenik berritu, udalerrian udaltzaingoaren lanak egitekoa. Gastu hori, 2015ean, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde autonomoei eta agentziei egindako transferentzietan erregistratu zen.

Bestalde, 2016an, ANIMSA sozietate publikoak Udalari ematen dion zerbitzu informatikoaren-gatiko gastua ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetako 2. kapituluari egotzi zaizkio.

Kontzejuentzako diru-laguntzak haietarako eskaerei erantzuten diete, premia berariazkoei eta urgenteei erantzuteko (obrak, konponketak eta abar). 2016an, Ballaraingo Kontzejuari 2.000 euroko diru-laguntza bat eman zitzaion konponketa bat finantzatzeko.

Berez mankomunatuta dauden zerbitzuetarako transferentziaz gainera, honako hauetarako emandako diru-laguntzak berriusi dira: musika eskola -55.860 euro-, jantoki soziala -15.300 euro- eta hirugarren munduaren garapena -27.030 euro-. Oro har, diru-laguntza horiek aplikatzekoa den araudiaren arabera eman, justifikatu eta erregistratu dira. Diru-laguntza horiei buruz, gainera, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Musika-eskolan, Udalak diruz laguntzen du udalerrian erroldatutako ikaslearen matrikula-kostuaren ehuneko 50.
- Jantoki sozialerako laguntzak lotuta daude Berriobeitiko, Berriozarko eta Xulapaingo udalek, Antsoaingo, Berriozarko, Berriobeitiko, Itzako eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak eta "Berriozarko Bizilagunei Laguntzeko Elkarteak" sinatuta daukaten lankidetzak-hitzarmen batekin. Hitzarmen horren arabera, Berriobeitiko Udalak aipatutako elkarteari hilean 30 euro ordaintzen dizkio jantoki horretara joaten den familia bakoitzarengatik. Kostu horrekin bai janaria, bai elkarte horren lokalaren mantentze- eta logistika-gastuen zati proportzionala ordaintzen da.

*Daukan helburua dela eta, gure iritziz Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeari lotutako laguntza-kontratu gisa izapidetu beharko zen, eta ez diruz lagundutako jarduera baten gisara.*

- 2010etik, Udalak ordenantza orokor bat badauka, garapenerako lankidetzak-proiektuetarako ematen diren diru-laguntzei buruz. 2016an, aurkeztutako 16 entitateetatik seiri eman zaizkie laguntzak, egindako puntu-esleipenari jarraituz.

Diru-laguntzen arloan, udal kontu-hartzaileak 2016an eragozpen-ohar bat aurkeztu du kulturaren, kirolaren eta gazteriaren arloko xedeetarako deialdiaren bidez emandako diru-laguntzei buruz. Eragozpen-ohar horretan nabarmentzen dira horien onuradun izan diren bost entitatek aurkeztutako justifikazioan ageri diren gabeziak –hasiera batean, 4.000 euroko diru-laguntza onetsi da–, horrekin arlo horretarako deialdiaren oinarriak urratzen direlakoan; gabezia horiek honako hauei buruzkoak dira, funtsean:

- Justifikazioa ezarritako epetik kanpo aurkeztea.
- Jarduerari buruzko oroit-idazkiak eta gastuen zerrendak falta dira.
- Beste diru-sarrera batzuei edo finantzatutako jarduerari buruzko informazioa falta da, eta kostua gainditzen da.
- Gastua justifikatzeko dokumentuak falta dira, ez baita betetzen faktura bat edo fakturen kopiak aurkezteko baldintza.

Eragozpen-ohar horren emaitza da entitate horiei azkenean emandako diru-laguntza 1.204 eurokoa dela.

## IV.8. INBERTSIOAK

Inbertsioengatiko gastuak 307.616 eurokoak izan dira, eta betetze-maila ehuneko 86koa izan da. 2015arekin alderatuta, ehuneko 43 egin dute gora.

Aurten esleitutako kontratuak, kapitulu honi egotzi zaizkionak, honako taula honetan aipatzen dira:

Deskribapena	Kontratu mota	Adjudikazio prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzaileen kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Gastua 2016an (BEZik gabe)
Udalaren lokalak egokitzeko obrarako proiektua eta zuzendaritza	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasuneko publiziterik gabekoa	13.636	3	9.545	7.159
Udalaren lokalak egokitzea	Obra	Negoziatua, Europar Batasuneko publiziterik gabekoa	103.000	3	85.315	89.966
Artikako pasagunea berregokitzea	Obra	Esleipen zuzena	17.946	1	17.946	17.946
Kiroletarako pista	Obra	Negoziatua, Europar Batasuneko publiziterik gabekoa	61.235	5	42.168	44.247
Argiteria publikoaren efizientzia energetikoari buruzko azterlana	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasuneko publiziterik gabekoa	11.000	3	6.700	6.700

Udalaren lokalak eta kirol pista egokitzeko kontratuak berrikusi dira, eta horren emaitza da araudi indardunaren arabera direla. Gainera, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Bi obrek ehuneko 5,45eko –lokalak– eta ehuneko 4,93ko –pista– desbideratze bat izan dute adjudikazio-prezioaren aldean; horrek 4.651 euro eta 2.079 euro gehiagoko gastua ekarri du, hurrenez hurren. Desbideratze horiek txosten teknikoetan justifikatuta daude, eta jabeek onetsi dituzte, eta honako hauei buruzkoak dira: lokalen kasuan, hobekuntzetarako prezio kontrajarriak; pistaren kasuan, berriz, neurketa bat handiagoa izatea eta beste unitate bat egitea.

- Pistaren obretan, ez dago jasota obraren zuinketa eta hasiera egiaztatze aktarik egin denik.



## IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldiko arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Ehunekoak Aldea
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	2.323.276	2.428.795	4
2. Zeharkako zergak	43.189	70.228	63
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	704.134	681.164	-3
4. Transferentzia arruntak	922.943	977.650	6
5. Ondare diru-sarrerak	543.920	627.570	15
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>4.537.462</b>	<b>4.785.407</b>	<b>5</b>
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	
7. Kapital transferentziak	126.942	16.746	-87
<b>Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)</b>	<b>126.942</b>	<b>16.746</b>	<b>-87</b>
8. Finantza-aktiboak	0	0	
9. Finantza-pasiboak	0	0	
<b>Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>4.664.404</b>	<b>4.802.153</b>	<b>3</b>

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 4,8 milioikoak izan dira; horietatik, 4,78 milioi diru-sarrera arruntei dagozkie eta 16.476 euro, berriz, kapital-transferentziei. Diru-sarreraren aurrekontua betetzeko maila ehuneko 90ekoa izan da; diru-sarrera horiek handiagoak dira kapitulu guztien –transferentzia arruntaren kapituluaren izan ezik– aurrekontuetan jasotakoak baino. 2015arekin alderatuta, ehuneko hiru egin dute gora.

2015ean bezala, 2016an Udalak ez du hirigintza-eragiketetatik heldutako diru-sarrera aipagarririk jaso. Ez du, ezta ere, finantza-zorpetzerik itundu.

Diru-sarreraren aurrekontuaren partiden lagin baten gainean azterketa egin ondoren –funtsean, tokiko zergak, erabiltzaileen kuotak eta kanona– egiaztatu dugu, oro har, egoki izapidetu, justifikatu eta kontabilizatu direla.

## a) Zergen bidezko diru-sarrerak

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen konparazioa erakusten dugu:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Ehunekoak Aldea
	2015	2016	
Lurraren kontribuzioa	1.162.166	1.188.171	2
Ibilgailuak	588.738	597.908	2
Lurren balio-gehikuntza	142.226	212.158	49
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	430.146	430.557	0
EIOZa	43.189	70.228	63
<b>Guztira</b>	<b>2.366.465</b>	<b>2.499.023</b>	<b>6</b>

Alde nabarmenak aurkitzen dira gainbalioen gaineko zergen bidez izandako diru-sarreraren igoeran, zeren eta higiezinaren transmisioak handitu baitira, eta EIOZeant, obrak egiteko eskarien espediente gehiago egon baitira.

2016an, Udalak honako tasa hauek aplikatu ditu:

Zergak	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,181	0,10 -0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
EIOZa	4	2 - 5
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	3,1 eta 3,3 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Zerga-tasa	10,5 eta 13 bitarte	8 eta 20 bitarte

Tasa horiek 2015eko tasen antzekoak dira.

Balioespen-ponentziaren azken gaurkotzea 2013ko irailean egin zen.

2017an ez da kudeatzen ari, kasu oso argi eta zehatzetan izan ezik, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga, haren legezketasunari buruz dagoen zalantza dela-eta eta haren araupetzean aldaketak egingo direlakoan.

b) Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Ondoren 2016ko eta 2015eko tasen, prezioen eta beste diru-sarrera batzuen bitarteko diru-sarreraren alderaketa bat erakusten dugu.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubideak		Ehunekoak Aldea
	2015	2016	
Berribeitiko kirol instalazioetako erabiltzaileen kuotak	462.523	449.895	-3
Ikastaro soziokulturaletako kuotak	27.598	31.741	15
Aparkalekuetako pasabideak	23.247	23.337	0
Irekitzeko eta jarduerako lizentziak	8.650	23.245	169
Lurzoruaren okupazio-tasak – Gasa	23.949	19.007	-21
Berribeitiko kirol instalazioetako igeriketa ikastaroetako kuotak	17.130	18.384	7
Premiamendu-errekarguak	12.274	17.254	41
Udalekuetan izena emateko kuotak	13.417	14.064	5
Bestelako diru-sarrerak	13.643	13.417	-2
Zorua eta hegalkinen aprobetxamenduarengatik tasak	6.189	13.346	116
Besterik	95.514	57.472	-40
<b>3. kapitulua, guztira</b>	<b>704.134</b>	<b>681.164</b>	<b>-3</b>

Kontzeptu nagusia Berribeitiko kirol instalazioetako erabiltzaileen kuotak dira, eta 2016ko alde horren azalpena da, funtsean, instalazio horien erabiltzaileen kopuruak behera egin duela.

c) Ondare bidezko diru-sarrerak.

Ondoren azaltzen dugu kapitulu honetan 2016an izan den bilakaera, 2015arekin alderatuta:

Ondare bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoa
	2015	2016	
Artikako kirol hiriaren kudeaketaren kanona	533.464	592.589	11
Tabernen errentamendua (erabilera anitza, Artika eta Gi-zarte Etxea)	8.547	6.606	-23
Banketxeetako kontuen korrituak	1.909	481	-75
Kamioiak aparkatzeagatik alokairua	0	24.010	100
Besterik	0	3.883	100
<b>5. kapitulua, guztira</b>	<b>543.920</b>	<b>627.570</b>	<b>15</b>

Diru-sarrera hauen kontzeptu nagusia Artikako kirol hiriaren kudeaketaren adjudikazio-hartzaileak Udalarari ordaintzen dion kanon finkoa eta aldakorra da; 2016an kanon finko hori 93.843 eurokoa izan da, eta aldakorra, berriz, 498.746 eurokoa. Aldakorra kalkulatzeko da aurreko

ekitaldian instalazio horien kudeaketaz arduratzen den enpresak lortu duen emaitzan (diru-sarrerak ken ustiapeneko gastuak) oinarrituta.

d) Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Ondoren 2016an eta 2015ean transferentzien bidez lortutako diru-sarreraren alderaketa bat erakusten dugu.

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Ehuneko Aldea
	2015	2016	
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	728.915	742.764	2
Haur eskolak	76.782	95.847	25
Funtzionarioen montepioak	66.876	69.109	3
Udalbatzako kideen ordainsariak:	29.495	53.771	82
Euskara bultzatzeko jarduerak	11.089	0	-100
Beste diru-laguntza batzuk	1.243	9.740	684
<i>Nafarroako Gobernuarenak, atal honetan, guztira</i>	<i>914.400</i>	<i>971.231</i>	<i>6</i>
Estatuarenak	6.574	6.420	-2
Toki entitateenak eta beste batzuenak	1.969	0	-100
<b>4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>922.943</b>	<b>977.651</b>	<b>6</b>
Toki entitateenak	126.942	16.746	-87
<b>7 kapitulua, kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>126.942</b>	<b>16.746</b>	<b>-87</b>

Transferentzia arrunten igoera gertatzen da Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzetan; 2015ekoekin alderatuta, ehuneko seikoa izan da igoera.

2016an ez da islatzen "euskara sustatzeko jarduerengatik" diru-sarrerarik, zeren eta Nafarroako Gobernuak 2016ko programa horretarako eman zuen diru-laguntza, 8.704 eurokoa, 2017ko urtarrilaren 11ko ebazpenaren bitartez eman baitzen, eta data horrexetan kobratu. Udalak 2017ko aurrekontuari egotzi dio diru-sarrera hori.

Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak Elkarteko Kontzejuarekin egindako likidazioari dagozkio. Honako eragiketa hauek eta haiek Udalaren diru-sarrera gisa erregistratzea jasotzen ditu:

Elkarteko Kontzejuaren likidazioa	Itxitako aurrekontuak	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	Kapital-transferentziak	Zorra, guztira
2012ko, 2013ko eta 2014ko jaiak	4.629	2.850	0	7.479
Hilerrian 2011n egindako obra	0	0	3.129	3.129
Zola emateko 2007an egindako obra	0	0	13.617	13.617
<b>Gastuengatik eta inbertsioengatik zorra, guztira</b>	<b>4.629</b>	<b>2.850</b>	<b>16.746</b>	<b>24.225</b>
2016an egindako kobrantzak	0	0	12.112	12.112
<b>2016-12-31n ordaintzeke dagoena</b>	<b>4.629</b>	<b>2.850</b>	<b>4.634</b>	<b>12.113</b>

Kobratzeko zegoen zenbatekoa 2017ko ekainean kobratu zen Elkarteko Kontzejuaren zorra-rekin lotutako gastuak aurreko ekitaldietan erregistratu ziren halakotzat

e) Itxitako ekitaldietako aurrekontuak-Diru-sarrerak

Hurrengo taulan erakusten dugu 2016an egindako kobrantzen eta itxitako ekitaldietako aurrekontuetako diru-sarreratik 2016ko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoen laburpen bat:

Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01	Kobrantzak 2016	Kaudimen ga-beziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31	Amaierako saldoaren gaineko %	Hasierako saldoaren gaineko kobrantzen %
2015	239.160	-111.216	-3.004	124.940	16	47
2014	107.226	-12.634	-2.849	91.743	12	12
2013	170.905	-35.041	-3.358	132.506	17	21
2012	71.835	-2.268	-1.467	68.100	9	3
2011	64.679	-3.795	-299	60.585	8	6
2010	69.050	-2.238	-28	66.784	9	3
2009a eta aurrekoak	232.175	-622	-425	231.128	30	0
<b>Guztira</b>	<b>955.030</b>	<b>-167.814</b>	<b>-11.430</b>	<b>775.786</b>	<b>100</b>	<b>% 18</b>

2013ko ekitaldiko saldoan 57.786 euro sartu dira, hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zergako (gainbalioa) zorraren geroratze batetik ordaintzeko gelditu den zenbatekoari dagozkionak. Geroratze hori Udalak baimendu zion zergadun bati, eta ordaindu beharrekoak ordaintzen ari da.

2010eko ekitaldiko saldoak 17.244 euro jasotzen ditu, Etxebakar Sektoreko Konpentsazio Baztarraren zor bati dagozkionak; behin haiek kobratuta, Iruñerriko Mankomunitateari transferituko zaizkio, harekin zenbateko hori bera duen zorra baitago itxitako aurrekontuetako gastu gisa.

Hona hemen itxitako ekitaldietatik kobratzeko dauden saldoen xehetasunak, diru-bilketako kontzeptuaren arabera:

Itxitako ekitaldietako aurrekontuak-Diru-sarrerak	Zenbatekoa	Guzt. gain. %
Lurraren kontribuzioa	127.274	16,4
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	205.128	26,4
Lurren balio igoeraren gaineko zerga.	110.022	14,2
Ibilgailuen gaineko zerga	125.894	16,2
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	34.654	4,5
Erabiltzaileen kirol instalazioetako kuotak	28.056	3,6
Trafiko isunak	1.849	0,2
Beste zehapen batzuk	17.289	2,2
Partikularren ekarpenak, auziak direla eta	23.064	3
Azoáis hiri-exekuzioaren salmenta	46.758	6
Aitzoingo urbanizazio kuotak	34.415	4,4
Gainerakoa	21.383	2,8
<b>Guztira 2016-12-31n</b>	<b>775.786</b>	<b>100</b>

Gure gomendioak:

- *Aurreko saldoak berrikustea, kobrantza-eskubideak islatzen dituzten aztertze aldera.*
- *Ikerketa- eta ikuskatze-tresnak indartzea, kobratzen kudeaketa errazte aldera.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko urriaren 17an Lehendakaria:

Asunción Olaechea Estanga